valderejo
parke naturala



Sorrera: Parke Natural 1992ko urtarrilean izendatu zuten.
Azalera: 3.496 Ha. **Kokapena:** Arabaren mendebaldeko muturrean, Gobiaran udal mugartean. **Parkearen barruan lau herri daude:** Lahoz, Lalastra, Ribera eta Villamardones, azkeneko honetan inor bizi ez delarik.
Helbideak: Gasteiztik N-1 errepidetik Langraitz Okaraino joaten da. Pobes, Gesaltza Añana eta Espejorantz hartu behar da Villanueva Gobiaraneraino heldu arte. San Millan de Zadorniletik irteten da Lalastraraino daraman errepidea.
Altitudea: Punturik gorena Recuenco da, 1240 m. Beherena 640 metroko altueran dago.

PR-7 Recorrido circular desde Lalastra pasando por las sendas Purón/Coronas - Lerón - La Sierra y San Lorenzo.


PR-8 Recorrido circular desde Lalastra pasando por las sendas Purón (desfiladero) - Vallegrull y San Lorenzo.

GR-282 Senda del Pastoreo. Cruza Valderejo por las sendas Bóveda - Purón (desfiladero) y Santa Ana.

Valderejoko Parke Naturalaren Bidezidorren Sarea (puntu horiak)



naturguneak araba
Bide zidorrak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

valderejo

Valderejo, Arabako mendebaldeko muturrean dagoen bailara txikia 1992an izendatu zuten Parke Natural. Arabako parkerik txikiena da, 3.496 hektarea besterik ez du-eta. Alabaina, luze-zabaleran txikia izan arren, ekosistema eta paisaia desberdin ugari hartzen ditu.

Haitz malkar ederrek –Recuenco, Vallegrull, Santa Ana– inguratzen dute Puron ibaiaren bailara txikia. Sakonean soro eta larreek nekazaritza eta abeltzaintza antzinatik datozela frogatzen dute. Mendi magaletan baso dentsoak hazten dira. Zabalenak pinu gorrienak, baina artadi eta pagadiak ere aipagarriak dira, eta denen artean ezaugarri desberdinetako paisaia eratzen dute.

Urak naturgune honetako harkaitzak milaka urtetan landu ditu, eta paisaia ederrak eman ditu, hala nola, Puroneko ur jauzia eta haizpitartea. Alderik gorenetan larre, ipuru, azeri-mahats eta txilarrek estaltzen dituzte lautada karstikoak.

Fauna baliotsua bizi da basoetan, basakatu iheskorra edo mokokore bitxia nabarmenduz. Zeruan arrano beltza edo sai zuria ikus daitezke, baina benetako protagonista sai arrea da. Valderejon Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen harrapari haratustel jale horien koloniarik handiena dago.

Pertsonak antzina-antzinatik bizi dira bailara honetan. Historia kultura ondareak kontatzen digu: monumentu megalitikoak –tumulu landa San Lorentzon, Lerongo iruinarria–, haitzuloetako eremitorioak, San Lorentzo baseliza, Santa Elena eliza, Lahozeko eliza gotikoa, San Estebe eliza. Larre eta belardiak, baso, txilardi eta abatzez nahastuta, abeltzaintzaren tradiziozko erabilpena adierazten dute eta zeruan, sai arreak planeatu eta isilik behatzen diote paraje bukolikoaren lasaitasunari.

Zerbitzuak

Lalastra herrian Parkeko Etxea dago, non ibiltariari parkearen, ibilbide, jarduera eta zerbitzu guztien gaineko informazioa ematen zaion. Egunero dago zabalik, astelehenean ezik, eta hitzordua hitzartu behar izaten da talde bisitak egiteko. Astialdi guneak, kultur bisitak, zidor sarea, hezkuntza egitarauak, natura ikasgela, erakusketak, haurrentzako ekipamendua, ostatu, jatetxe eta aparkalekuak prismatikoen mailegua eta bolatokia jolasteko materiala.

Nola heldu

N-1 errepidetik, Gasteiztik Langraitz Okara. Pobes, Gesaltza Añana eta Espejorantz hartu Villanueva Gobiaraneraino. Millan de San Zadornilen Lalastraraino joan daiteke. Han daude, egon ere, Parkeko Etxea, astialdi gunea eta aparkalekua.

Ikurren azalpena

- Begiratokia
- Baseliza
- Informazioa
- Parkeko Etxea
- Astialdi gunea
- Jatetxeak
- Nekazalturismoak
- Aparkalekua
- Hotela/ Landetxea
- Historiaurreko elementua

Eguraldiaren informazioa

	Udaberria	Uda	Udazkena	Negua
Batez bezteko gorena	25,2	36,4	27,4	16,3
Batez besteko beherena	9,2	17,3	11,9	4,4

Distantziak Valderejotik (Lalastra):

Vitoria-Gasteiz:	56 km
Burgos:	118 km
Logroño:	105 km
Bilbao:	81 km
Donostia-San Sebastián:	166 km
Pamplona-Iruña:	150 km

Bide zidorrak

Kolorea	Zidorrak	Distantzia	Iraupena	Zailtasuna
1	1. Purón (haizpitartea)	5,2 km	ordu 1 eta 30 min	Ertaina
2	2. La Sierra	9,4 km	3 ordu 30 min	Ertaina
3	3. Purón/Coronas	5,6 km	ordu 1 eta 15 min	Ertaina
4	4. Lerón	2,2 km	ordu 1	Ertaina-Baxua
5	5. Bóveda	1,6 km	40 min	Ertaina
6	6. San Lorenzo	2,6 km	ordu 1	Ertaina-Baxua
7	7. Vallegrull	5,2 km	ordu 1 eta 30 min	Ertaina
8	8. Portilla	6,6 km	ordu 1 eta 30 min	Ertaina
9	9. Santa Ana	3,6 km	ordu 1	Ertaina-Altua
L	LOTURA: zidorren artean			
D	DERIBAZIOA: zidorretik toki batera			
	ITXITAKO TARTEA: Hegazti harkaiztarren ugalketa epealdian (urtarriaren 1etik abuztuaren 15era)			
	Ibilbide didaktikoa	5 km	ordu 1 eta 30min	Zailtasun Baxua

Debekatua dago

- Sua piztea eta egurra ebakitzea.
- Motordun ibilgailuekin ibiltzea, baimendutako esparruetatik kanpo.
- Edozelako zakarra bertan uztea edo/eta lurperatzea.
- Aparkatzea, baimendutako zonetan izan ezik.
- Naturako elementuak hondatzea, aldatzea edo/ eta kentzea.
- Tresnak eta ibilgailuak ibaietan, aintziretan edo erreketan garbitzea.

Zenbait aholku

- Txango bati ekin aurretik, har ezazu informazioa ibilbidearen zailtasunari eta eguraldiaren iragarpenari buruz. Parkeko etxeak eta langileak zure zerbitzura dituzu.
- Isilik paseatzea eta animalien ohiturak ezagutzea (prismatikoak badaramatzazu eta kolore biziko jantzirik ez baduzu, errazagoa izango zaizu animaliak behatzea).



Lalastra

Lalastran, Parkerako sarrerako ate, Landa Interpretazioko Zentroa dago, non, prozesu eta tresna zaharren bidez, bailararen historia eta Valderejon iraganean zeuden ohitura eta usadioak erakusten diren. Ibilbide honen abiapuntua da. Aurrez aurre harraska zaharra dago.

Elizarantz zoazela ogi labea dago, orain dela gutxira arte ezinbestekoa herrietan.

Aurrerako ferratzeko zaldia dago. Elizaren atariaren aurrean bolatokia dago, ohiko jokoa, antzina, Lalastrako biztanleen astialdian. Orain bolo txapelketa egiten dute San Lorentzo egunean.

Elizako dorrean 1859ko apirilaren 25ean jarri zen erlojua dago, 2000 pinu balio izan zuena. Ordu orratza baino ez dauka, minutuenik ez. Makineria ikusteko aukera dago, kanpandorrera igota.

Parkeko Etxea. Lalastra.
Tel.: 945 353 146
posta el.: parquevalderejo@parques.araba.eus
webgunea: www.araba.eus/parquesnaturales

Ordutegia

	Neguan (desde 1-10 hasta 31-3)	Udan (desde 1-4 hasta 30-9)
Lanegunak	9:00 -15:00	10:00 - 14:30
		16:00 - 19:00
Jaiegunak	10:00 -14:30	10:00 - 14:30
	15:30 - 17:30	16:00 - 19:00

ASTELEHENTAN ITXITA



Diseinua: Idea y Vino S.L.
Testuak: Ekos, ingurumen aholkularitza eta ikerkuntza.
Argazkiak: Joseba del Villar.
Kartografiaren diseinua: Gorosti Neurketak S.L.
Imprimaketa: Arabako Foru Aldundiko Imprimategia.
Edizioa: Arabako Foru Aldundia. Ingurumen Saila.
Lege gordailua: VI XXX-2018

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

araba naturguneak
Bide zidorrak
valderejo
parke naturala

valderejo
parke naturala

Valderejoko parke naturalak, eremu txikia izan arren –3.500 hektarea ditu ozta-ozta– askotariko paisaiak eta inguruneak biltzen ditu.

Bederatzi bide zidorrek osatutako sarean zehar ibiltariak babespeko gune honetako bazter ezin ederragoak topatuko ditu, bertako landareak eta animaliak ikusi ahalko ditu eta lurralde honetan bizi izan ziren eta gaur bizi diren gizakien tradizioei eta kulturari erreparatuko die. Ibilbide gehienak laburrak badira ere, batetik bestera igaro daiteke eta "ibilaldi luzeak" osatu.

Hainbat dira bisitaria parkeko goialdeetara eramango duten bideak –La Sierra, Vallegrull, Lerón edo Bóveda alderdietara doazenak–. Gain horietatik ikuspegi izugarri ederrak daude bai Valderejora eta bai inguruetako haranetara. Antzinako biztanleek euren aztarnak utzi zituzten gailur hauetan, besteak beste, San Lorenzo zelaiko tumuluak eta El gustal menhirra. Bide gehienak herriren batean hasten dira. Lau herri daude, batzuk erdi jausita (Villamardones eta Ribera) eta besteak oraindik "bizirik" (Lahoz eta Lalastra). Herriguneetan sartuz gero, ibiltariak begi aurrean izango ditu antzinako usadioak eta ohiturak; horietariko batzuek gaur egun indarrean diraute.


Purón ibaiaren ertzetik doan bidean aurrera, urak mendeetan zehar harrian landutako paisaia ederrak ikusiko ditu ibiltariak, begien gozagarri. Zenbait lekutan –Purón-Coronas bidea eta Portilla bidea– urak putzu txikiak egin ditu, gizakiaren laguntzaz zenbaitetan. Urmael horiek interes handiko bizidunen babesleku dira: anfibioak, hegaztiak, uretako landareak...

Badira baso zoragarriak ere –pinudi gorriak, pagadiak, artadiak...– Vallegrull, Purón, Portilla, Lerón eta Santa Ana ibilbiden alboetara han-hemenka. Litekeena da halako batean basoko animalia zolienetako batzuk topatzea: orkatza, lepazuria, mokokerra, arrabioa... Zerura begiratuz gero, zabiltzan bidetik zabiltzala ere, ia beti ikusiko duzu sai arrearen irudi liraina. Hegazti bakan honek kareharrizko labarretan egiten du habia, Vallegrull eta Lerongo inguruetan. Hain zuzen ere, ibilbideetako batzuk itxita egoten dira sasoi jakinetan, txitaldia egiten ari diren hegaztiek eragozpenik izan ez dezaten.

Hala bada, baso, larre eta mendietan zehar ibilita, erraz ulertzen da zergatik den Valderejo gaur egun babespeko naturgunea. Aldi berean garbi ikusten da denon ardura dela leku hau dagoen bezala zaintzea. Horrela etorkizuneko belaunaldietako jendea bide hauexetatik ibiliko da eta gu bezalaxe gozatu ahalko da paisaia berezi hauetaz eta, azken batean, Valderejok dituen ondasun natural guztiez.

1. Purón zidorra (haizpitartea)
Lalastratik Puronen haizpitartera

Distantzia: 5,2 km
Denbora: ordu 1 eta 30 min
Zailtasuna: Ertaina



Lalastratik Interpretazio Zentroaren aurrez aurre dagoen seinaleztatutako bidea hartzen da, eta heskai, pinudi eta horma zaharren artetik ibiltzen da. Handik gutxira, ia parke osoa ikusten da, eta panel interesgarri batek paisaiaren transformazioaren berri ematen du. Elorri triska eta ipuru artean poliki jaisten hasten da. Eskuinetara, pinu gorrien pinudiak eta pagadiak. Bidegurutze batean, ezkerretara Portilla zidorrarekiko lotura irteten da, eskuinetik pinuditik segitzen da bidea gurutzatzen duen Polledo latsa aurkitu arte. Egurrezko lehenengo atea igaro eta pinudiaren ordez arteak ageri dira.


Sakan sakonaren sakonean jada Purón ibaia entzuten da, berehala bidearen paralelo joango dena, pago handiz inguratuta. Aiurri egoeran dagoen Ribera herriko eliza ageri da harkaiztiaren gainean. Herrira sartuta, non astialdi gune bat eta iturri bat dauden, zubia gurutzatu eta landa handi bat eta zenbait ate zeharkatu ondoren, pinu, ezkametz, ur garbi eta ur jauzien artetik jaisten da, Valderejo Burgoseko Tobalina bailararekin lotzen duten 500 bat metroko luzerako haizpitarte esturantz. Haizpitartetik irten eta gutxira, Santa Ana zidorrarekin batzen den bidegurutze seinaleztatua dago. Aurrez aurreko bidearí segituz gero, Burgoseko Herrán herrira heltzea dago.

Purón ibaia



2. La Sierra zidorra *(parcialmente cerrada del 1 de enero al 15 de agosto)*
La Sierrako mendatetik San Lorentzo baselizaraino

Distantzia: 9,4 km
Denbora: 3 ordu 30 min
Zailtasuna: Ertaina



Bóvedaren zidorraren amaieran hasten da, La Sierrako mendatearen gainean. Bidea harkaitzen artetik doa, lore desberdin ugari han-hemenka barreiatuta ikusten delarik. Geroago pagadi batean sartzen da eta, behin zeharkatu ondoren, ezkerretara Lahoz herria eta sakonean Recuenco gailurra ageri dira.

Ezkerretara gurutze bat uzten da, eta horrela Lerongo mendateko muinora heltzen da. Altitude hauetan txilarra da landare nagusia. Hemendik bailarara jaistea dago, Lerón zidorretik, edo bestela Recuencora igo daiteke. Ebakia inguratuz, zidorrari pago eta pinu txikien artetik segituz


Barrerón mendatera heltzen da, non Purón-Coronas zidorrarekin lotu eta Lahozerantz jaisteko aukera dagoen. Aurrez aurre segitu eta sakonean San Lorentzo baseliza eta Vallegrull mendia ageri dira. Bidegurutze batera heltzean, aurrera jo eta bailarako zaindari San Lorentzo baselizara heltzen da. Hemendik Vallegrullera igo daiteke, edo San Lorentzo zidorretik Villamardonesera jaitsi.

Ikuspegia Recuencotik



3. Purón-Coronas zidorra
Lahozetik Barrerón mendateraino

Distantzia: 5,6 km
Denbora: ordu 1 eta 15 min
Zailtasuna: Ertaina



Lalastratik Lahozera gerturatu behar da, handik abiatzen baita zidorra. Herria ezkerretara utzita, lehenengo metalezko barrera bat zeharkatu behar da, eta handik metro gutxi batzuetara Purón ibaia zeharkatzen da. Bidearen bi aldeetan oso landaredi oparoa hazten da. Berehala lezkak hazten diren istilera heltzen da. Handik gutxira eskuinetara pista bat uzten da eta, aurrez aurre, Puronen paralelo Barrerón mendatean La Sierrako zidorrera daraman lotura irteten da.

Ezkerretara hartu eta Coronas mendateraino igotzen garen bitartean, ageri zaigun panorama zoragarria da, Vallegrulleko kareharrizko hormatzarrak (ezkerretara), Recuencotik Arrayuelaserakoak (eskuinetara), eta bailara zabala, non Lahoz eta Lalastra herriak bereizten ditugun.


Alternatibak:
Behin bidezidorra bukatuta, El Barreron loturatik bueltatzeko aukera dago, honek Purón-Coronas zidorrera bidaltzen duelarik. Lotura honetan aurkitzen da Puron ibaiaren iturburua, bakarrik eurite garaian ura daramana.

Lahozko larreak



4. Lerón zidorra *(cerrada del 1 de enero al 15 de agosto)*
Lahoztik Lerongo mendatera

Distantzia: 2,2 km
Denbora: ordu 1
Zailtasuna: Ertaina-baxua



Lahoztik irtenda, herriaren eskuinetara jotzen duen pista hartzen da, horrela Paules bailaran barneratuz. Handik metro gutxira ur istila gainditzen da, hesia saihesten da eta lats bateraino heltzen da. Latsa zeharkatu behar da, ondoren ezkerretara dagoen finka baten mugari jarraitzeko. Bidea, aurrerago, ezkerretara, larredi batek mugatuko du, eta eskuinetara, elorri eta arrosadiz estalitako ezponda batek. Pinu gorriko baso baten behealdetik joaten da, metalezko ate bat zeharkatuz, eta pixkana Lerongo mendatera igotzen hasten da. Poliki-poliki pagadi itzaltsu eta iluna pinudiari lekua irabaziz doa.

Altitudea hartu ahala, basoa argituz doa. Behin Lerongo mendatera helduta, Recuenco gailurraren soslai bikaina ikus daiteke (1.240 m), bertaraino igotzea ere badagoelarik. Hemendik bailararen sai arreak habiak jartzen dituen alde gorenetan nagusi diren harkaizti ederrak ikusten dira. Eskuinetara segitzea ere badago, La Sierrako zidorretik, Lalastrara joateko.


Alternatibak:
Ezkerretara joateko aukera ere badago, La Sierra zidorretik ibiltzeko San Lorentzo baselizaraino. Ondoren, San Lorentzo zidorretik itzuli daiteke Lalastraraino, hustuta dagoen Villamardones herritik igarotzen dena.

Lerongo mendaterako bidea



5. Bóveda zidorra
Lalastratik La Sierra mendatera

Distantzia: 1,6 km
Denbora: 40 min
Zailtasuna: Ertaina



Lalastratik irteten da, San Zadornilerako errepidetik. 200 bat metrora, Gurutzeria zahar bat dagoen tokian, elorri zuri, gereziondo, arrosadi, astigarrez eta abarrek eratzen duten eta bertoko basoko bizitzarako oso garrantzitsua den heskai naturalak inguratzen duen ezkerreko pista hartu behar da. Pista igotzen hasten da, bi alboetan zereal soroak utzita. Aldapa gogortzen denean, pinu gorriko pinudian barneratzen da, lehenengo eskuinetara biratuz eta gero ezkerretara, azkeneko bihurgune horretan eskuinetara pinudian sartzen den pista bat lagata.


Landareen artean artea ageri da, pixkana pinu gorria ordeztuz doana. Pistari segituz, La Sierrako mendate gainera heltzen da (1.100 metro), nondik Parkearen multzoaren eta Valderejoren paralelo dagoen eta Bóveda herria dagoen bailararen ikuspegi bikainak ikusten diren. Behin gainean, eskuinetara dagoen pistari segituz Arrayuelas mendira ere igo daiteke (1.116 m). Era berean, mendatetik ezkerretara jota, La Sierrako zidorrarekin lotzen da.

Portillo La Sierra



6. San Lorentzo zidorra
Villamardonesetik San Lorentzo baselizara

Distantzia: 2,6 km
Denbora: ordu 1
Zailtasuna: Ertaina-baxua



Lalastratik errepide zaharretik hutsik utzitako Villamardones herrira heltzen da. Aiurritan dagoen elizaren aurrean dagoen hagin eder bat malda leuneko zidorra hartzeko erreferentzia da. Eskuinetarantz, pinu gorriko eta pago ale ederreko baso batean barneratzen da, eta magaletik joanez, pixkana, baselizaraino heltzen da. Heldu zarela jakingo duzu harkaiztiaren ertzean dagoen neurriz kanpoko metalezko gurutzea aurkitzean. Hortik bailararen lautadaren, Bóveda eta Gobeako mendilerroetako harkaiztien ikuspegi panoramiko zoragarriak zabaltzen dira. San Lorentzo baselizatik Vallegrull zidorrarekin lotzea dago, edo bestela, Riberara jaitsi edo Vallegrullen tontorrera igo. La Sierra zidorrarekin ere lot liteke.

Alternatibak:
Ezkerretarantz segitzen da, baselizatik, larredi, tamaina txikiko pinu eta ipuruen artean, eta "El Cubo" izenez ezagutzen den eremuraino jaisten da, nondik zidor batetik 100 metro joanez gero, Vallegrulleko harkaitzen ikuspegi ederrak eskaintzen dituen hegazti behatoki bateraino heltzea dagoen. Istiletik ipurudi batetik jaisten jarraitzen da, ezkerretara horma bat lagata, eta bidea pagadi batean barneratzen da. Ezkerretarako bihurgune baten ostean, eremu garbi batera heltzen da, ondoren berriro pago eta hurritzen artean sartzeko eta Villamardoneseko haginean agertzeko.

Basoak San Lorentzo baselizatik behera



7. Vallegrulleko zidorra *(cerrada del 1 de enero al 15 de agosto)*
Riberatik Vallegrullera

Distantzia: 5,2 km
Denbora: ordu 1 eta 30 min
Zailtasuna: Ertaina



Zidor hau hutsik utzitako Ribera herrian hasten da. Behin herria zeharkatuta, zidorra eskuinetarantz doan pista batetik abiatzen da. Larredi batzuk igaro ondoren, pista pinudi eder batean sartu eta pixkana altuera hartuz doa. Pinu gorrien ondoan pago ale bikainak ikusten dira. Aurrera joan ahala, ezkerretara Vallegrull mendiaren ipar-ekialdeko magalean dagoen harresi handia uzten da. Harkaizti hauetan sai arrek habiak egiten dituzte.


Igoera, beti pinudiaren barruan, oso pikoa ez den aldapatik egiten da, eta horrela La Sierra zidorrera heltzen da. Hemendik San Lorentzo baselizaraino joatea dago, eskuinetara doan zidorra hartuta. Handik hutsi utzitako beste herri batera, Villamardonesera jaistea dago, ondoren Lalastrara joan eta Purón zidorretik Riberara itzultzeko. Vallegrullera igotzeko ezkerretara jo behar da, eta pinu gorriaren ale eder batzuen ondotik, gailurrerako igoerari ekiten zaio. Igoera gogor samarraren ostean, gailurreko tontorrera heltzen da. Ezkerretara jo eta paseo labur eta leunaren ostean, alde batera zein bestera ikusten diren panoramika ederrez gozatuz, Vallegrulleko gailurrera heltzen da (1.226 m).

Lapiaza Vallegrullen



8. Portilla zidorra
Lalastratik Riberara Portilla Zelaietatik

Distantzia: 6,6 km
Denbora: ordu 1 eta 30 min
Zailtasuna: Ertaina



Ibilbidea Lalastran hasten da, Interpretazio Zentroaren aurrez aurre seinaleztatuta dagoen bidea hartuta, eta metalezko hesi bat zeharkatu eta berehala, ezkerretara jotzen da, pinu artean pixkana gora eginez.


Beste hesi bat zeharkatu ondoren, landaredia aldatzen da, orain ipuruak ageri dira bide inguruan. 30-45 minutura Portilla zelaiak daude, non jada arteak ikusten hasten diren. Eskuinetara Purón zidorrera jaisten den lotura uzten da eta Lalastrara ibaiaren bideari segituz itzul daitekeenez, ibilbidea laburtzeko aukera dago. Aurrez aurre segituz bidegurutze batera heltzen da, ezkerrekoa hartu behar da pinu eta pago artetik jaitsita, beste bidegurutze batera heldu eta handik eskuinetarantz jaisten hasten da.
Istil txiki baten ostean, ezkerretara hartu behar den bidegurutzera heltzen da.
Hesi bat zeharkako eta Ribera bailararen eta Santa Ana harkaitzaren ikuspegi ederrak daude. Landaredian, orain, arteak dira nagusi, pinu eta ezkametz batzuekin. Beste alanbre hesi bat igaro behar da, ezkerretara, eta jaisten jarraitzen da, larretatik, hariteria elektriko baten azpitik igarota. Azkenean Riberara heltzen da.

Pinudia



9. Santa Ana bidezidorra
Riberatik Purongo haizpitartera Santa Anatik

Distantzia: 3,6 km
Denbora: ordu 1
Zailtasuna: Ertaina-Altua



Riberatik irteten da, garai batean Villafriara zeraman errepidetik. 500 bat metrora, tentsio altuko kable batzuen parean, eskuineko bidea hartzen da. Larre bat zeharkatzen da, makal batzuetaraino, eta handik Ampo latsa gurutzatzen da. Elorri beltz eta elorri zurien arteko bide batetik igo eta alanbre hesi bat zeharkatu ondoren, aurrerantz segitzen da, ezkameztien artetik, larre bateraino. Egoera txarrean dagoen pista batera heldu eta ezkerretara metro batzuk segitu behar da, eskuinetara dagoen zidorretik jarraitzeko, alanbre hesi baten paralelo.

Hasi eta 30 bat minutura, Santa Anako mendi-muinora heltzen da. Mendi-muinotik gailurrera (1.042 m) iristea badago (15 minutu). Hemen jaisten hasten da, arte eta azeri-mahats artean, Purongo haizpitarteraino. Alanbre hesi batetik igaro ondoren, bidea eskuinetara segitu behar da, gurbitz, arte, gogortxuen artean, eta jaitsieraren amaieran iristen den haizpitartearen ikuspegi ederrez gozatzen. Behin haizpitartean, Purongo zidorretik segitzen da Riberaraino edo Herraneraino jaistea dago.

Ikuspegia Santa Anako mendi-muinotik

